



Astekaria



elgoi

KILOMETROAK 96

Musika banden alardea



AZKUE




MAPFRE

ASEGURU ETXEA

San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

**HOT
505**



Levi's

GARATE



Levi's Denda Baimendua



elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZTATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENeK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luzna fundazioa
Fundación luzna



Zaratak

Orain dela aste batzuk, animalien ohi-turak jarraituz, behar adina lo egitearen garrantzia gogoratu zigun sekzio honetan Juan Mari Elustondok.

Berak zioenez, telebistaren ondorioz ez dugu behar beste lo egiten. Nire kasuan behintzat, arrazoi guztia du, interesgarriak iruditzen zaizkidan teleaio guztiak oso berandu ematen baitituzte.

Telebistaz gain, lo nahikoa ez egitearen beste faktore garrantzitsu bat zaratak dira. Gaur egun, etxeak zaratatik isolatzeko sistema ugari aurkitu arren merkatuan, zarataz beteriko ingurugiro batean murgilduta bizi gara. 35 dezibelioz gorako zaratek onugarriak ez diren ondorioak dakartzate gizakien osasunarentzat. Elgoibarko alde batzuek 60 dezibelio gaintzen dituzten zaratak jasaten dituzte. Adibide aipagarria motorrak dira, 100 dezibelioz gorako zarata ateratzen baitute. Industriegune batean bizi gara, eta hitzegin ere, behar baino altuago egiten dugula nabaria da.

Hiru urte pasa dira gutxi gora-behera, telefonika inguruan bizi diren auzokoez kexa bat zuzendu zutela Donostian kokatzen den telefonikaren zentralera, emerjentzietako grupo elektrojenikoak sortarazten zituen zaratak neur zitzaten. Grupo elektrojeniko hau noizean behin martxan jartzen dute zarata eta ke gehiegi sortuz, auzokoen iritziz onargarria den maila gaintuz.

Telefonikako teknikoak zaraten maila neurtzera etorri zirenean, harri eta zur geratu ziren. Goizeko hamarrek ziren eta 60-70 dezi-


belio neurtu zituzten, grupo elektrojenikoa martxan jarri gabe. Egia esan, grupo elektrojenikoaren zaratek ez zituzten neurketaren emaitzak asko aldatu. Telefonikakoek Elgoibar herri zaratatsu bezala deskribatu zuten.

Nola jaits daiteke herri bateko dezibelio maila? Adibidez, oso garrantzitsua da kamioiak herri barrutik ez pasatzea. Era berean, beharrezkoa gerta daiteke almatzen asko herrietatik kanpo eraikitzea. Ildo honetatik jarraituz, egin gabe edo proiektu mailan dauden azpiegitura eta komunikabide obrek asko lagundu dute zaraten maila gutxitzen: Azkoitiko errepeidea, Txankakua eta Urasandiko errotondak... Goiko-Errotako zubirako oraindik ez dago proiekturik baino espero dezagun egin egingo dela zerbait noizbait.

Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro kalea eta San Roke zubiaren elkarpuntua zarata askoko puntuaz gain, oso arrisksua da auto eta kamioi askoren pasabidea izateaz gain jende ugari ibiltzen baita bertatik (eskerrak mugimendu gehien dagoen orduetan udaltzain bat egoten dela trafikoa zuzentzen). San Rokeko zubiak ere konpontzeko premia du. San Roke auzoko sarrera izanik, autoentzako dagoen bakarra, azera oso estuak ditu eta ez dirudi jasan behar duen garraio-pertsonen mugimendurako prest dagoenik. Kontuan izan behar dugu San Roke auzoan kokaturik daudela Kiroldedia, Institutua, Lanbide Institutua, Mintxetara joateko bide bat...

Mila Oyarzabal

*Eusko Jauraritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Ba al dauka Udalak Ubitarteko jardinak konpontzeko asmorik? Benetan egoera lotsagarrian daude.

Alkatearekin egon gara eta orain-goz ezetz erantzun digu. Arrazoia langile falta dela gehitu du.



KEXAK

- Herritar batek zera esan digu: "Lotsagarria da nola dauden **Elgoibarko zona berdeak**. Trinitate jaiak izanik zerbait egingo zuten esperantza neukan baina diru falta izan da ezer ez egiteko aitzakia".

- Emakume bat etorri zaigu **Udaberri taberna pareko zebra-bidea** oso arriskutsua dela salatzen. Batetik, pareko etxeko obrak direlako eta bestetik, jendeak bigarren filan aparkatzeko duen ohituragatik, oinezkoentzat oso arriskutsua da. Udaltzainei neurriak hartzeko eskaria luzatu nahi die.



TXALOAK

"Txalo bat Musikeskolari, haurren Tanborrada benetan ondo antolatu zutelako, bai eta Dantza Eskolakoei ere astearteko jaialdia zoragarria izan zelako".

"Txaloak pila kontenedoreak jarri dituztelako eta ea jendea erabiltzera animatzen den".

ESKUTITZAK

Hirigintza eta artegintza

San Antolingo eskulturaren aitzakia hartu eta Aitor Zabaletak idatzitako "Burdin zatia" izeneko lanari, nahaskeria dariola irizten diot. Aitorrek alde batetik, natura jartzen du eta bestetik, artegintza, biak kontrakoak balira bezala. "Herriaren onerako egin daitekeen artelanik onena" berdeguneak egitea omen da eta adibide gisara Iparraldea aipatzen du. Ni Iparraldean bizi naiz eta egia da hemen hiriak eta bazterrak hobeto zainduak daudela Elgoibarren baino, baina ez da, hala ere, artelanik falta inguruan. Gauza bat da hirigintza bere arkitektura eta naturguneekin, eta beste bat artegintza. Ez daude bata bestearen kontra. Arbola eder bat eta eskultura eder bat bi gauza ezberdin eder dira. Batak besteari lagun diezaioke gainera. Bi adibide ospetsu jartze aldera, Txillidaren "Haizearen orraziari" esker itsasoa hobeto gureganatzen dugu eta Agiña mendiko paraje borobil eta bilutsei esker, hobeto sartzen gara Oteizak Aita Donostiarren omenez egindako artelanaren trszendentzian. Batak ez du bestea eragozten, alderantziz, batak bestea azpimarratu, indartu eta era berri batean ikusten laguntzen du.

Kontua beste bat da: gehienetan, gure hiriak egitera sartzen diren astapotroek, ez dute dardarizorik eukitzen ez gaztainondo eder baten aurrean eta ez eta ere artelan zoragarri baten parean. Seguru nago Aitor


ez dela hauen artekoa, horregatik harritu nau bere idazlanak. Bidebategi, eta sakontzeko asmorik gabe, esan dezadan San Antolingo eskulturara lana bera ez dela hain txarra baina ez duela batere "funtzionatzen". Askotan gertatzen da hori baldin eta artelana kokalekua kontutan hartu gabe egiten bada edo erabakia hartu dutenek berbetan dihardugun honetaz ez badute gogoetarik egin. Arazo asko dauzka bidegurutze horrek, bai, baina bat aipatzekotan, esan dezadan trenbidea eta autopistaren zubiek horizontal indartsuak egiten dituztela eskulturaren gainetik eta horrek ikusteaz bihurtzen duela artelana. Irentsita dago, ez du ezer markatzen, ez du ezertan laguntzen. Akaso beste leku apalago batean ondo legoke. Kontua da arbola eder bati ere gauza berdintsua gertatuko litzaiokeela leku horretan, nahiz eta mila urteko haritz ederra izan. Nik neuk, handinahi gehigirik gabeko "adorno" horizontal edo borobil artistiko bat jarriko nukeen edo, zergatik ez, kolore ederreko gaztaina eta lili polit batzuk. Gehiegizkoa baita arteari edo naturari desastre urbanistikoa konpon dezatela eskatzea.

Hasier Etxeberria

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan den asteko ezkontzen erreportaian, ".. bazkarixa Fernandon gurasuek ordaindu zeben" jartzen zuen tokian, beste hau jarri behar luke: "bazkarixa **gu bixon** gurasuek ordaindu zeben".

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Rosarito Iriondok ekarri digun erretratu hau 1943koa da. 1942-43 ikasurte amaierakoa ei da, Aita Agirre Plazako eskoletan ateratakoa. Bertan agertzen zaizkigun neska koadrila hauen izenak:

Atzean, ezkerretik hasita: **Mari Carmen Azpiazu, Esther Unzilla, Jesusa Uriarte, Mari Luz Izagirre,**

Cristina Goikoetxea eta Mari Tere Iraegi.

Erdian, eserita: **Libe Iriondo, Arrate Mujika, Mentxu Iglesias (umea), Nati Zabaleta, Pilar Rementería (†), Isabel Aizpitarte eta Aurea Azpiazu.**

Aurrean makurtuta: **Pepita Azpiazu, Maribel Iglesias (umea) eta Rosario Iriondo.**



*Maiatzaren 28an, 36 urte zituela, hil zen
JOSE RAMON ASTIGARRAGA URANGA "ASTI" ren
sendiak eta lagunak bihotzez ESKERTZEN ditu
jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Trinitate jaietan ateratako erretratuz bete ditugu bi orrialde hauek aurtengo jaiei errepassoa emateko asmoz. Ikusitakoaren arabera, badirudi aurten beste batzuetan baino jende gehiago ibili dela eta giroa ere polita izan dela.

Udalak ostiralerako programatuta zeuzkan zenbait ekintza bertan behera utzi behar izan ziren eguraldi txarragatik, besteak beste, zezen mekaniko txapelketa. Asteburua hain modu euritsuan hasi zela ikusita, baten batek arraultzak eraman omen zizkion Santa Klarari, larunbat goiza aterri agertu baitzen. La Unión-ek antolatutako Ehiza Txakurren “Trinitate Saria” txapelketan 19 txakurrek hartu zuten parte arraza ingelesean eta 3k baino ez arraza kontinentalean. Azken honetan Lasarteko Mikel Leforestier-en jabetzako Lai txakurrak irabazi zuen. Arraza ingelesean, Erandioko Carlos Burgeteren Nei geratu zen lehen postuan eta honen jabetzako den Kas txakurra hirugarrenean. Bigarren Txuri sailkatu zen, Jose Luis Pérez donostiarrarena. Elgoibartar bakarra aurkeztu zen, Aitor Garitaonandia. Bere txakurrari, Jai izenekoari, eman zitzaion herriko onenaren saria.

Aurrez antolatu baina gero burutu ez ziren beste ekintzetariko bat kuadrilen arteko bazkaria izan zen. Oraingoan arrazoia ez zen eguraldi txarra izan, jendea ez zela animatu baizik. Datorren urtean agian.

Nagusien Tanborradan 100 bat lagun atera ziren kalez kale tanbor eta barrika joka: frantsekak eta sukaldariak aurrean, Musika Banda erdian eta oilaskoa eta txanpain boltiak zermatzan karroa atzean. Gero, gauerditik aurrera, Jose Ripiau eta Baldin Bada taldeen kontzertua izan zen Madalako parkean. Jendea begira bai, baina dantzan gutxi batzuk.

Domeka goiza euri mehatxuan zebilen hasiera-hasieratik. Aritsau-tza feria Leku-Ederreko parkean eta Elizako arkupeetan kokatu zen. Plaza Handia, berriz, Musikeskolako haurrez beteta zegoen Haurren Tanborradari ekiteko prest. Kantinerak zaldi eta guzti, frantsesak, sukaldariak, karroza musikatresna eta ikasleekin, eta, lehen aldiz jo zuen Banda Gaztea. Jotzeari ekin eta euria hasi. En fin! Aipatu behar da, bi tanborradetan antolakuntza aparta izan zela.

Arratsalde alderako euria egiteari laga zion eta ekitaldiak iragarrita zueden bezala joan ziren gertatzen: buruhandien kalejira, Gelatxorekin dantzaldia Plaza Handian eta blues zaleen gozamenerako, (elgoibartarrak baino kanpotarrak ziren gehiago Madalan), Ñaco Goñi Blues Band and Armonica Projects taldearen saioa. Datorren urtean gehiago!



Trinitate





nte jaiak



Tenporak

Tenporak hitza latinezko tempus (< tempora pluralean) hitzetik dator. Euskaraz garta-denbora (> cuarta-tempora) izenaz ere ezagutzen dira. Kristau-erlijioa Eliz urteko lau denboraldi dira, urtaro bakoitzeko hiruna egunekoak, barau eta limosnarentzat eratuak hasiera hartan.

III. mendean Erroman sortutako ohitura omen da, gero beste herrialde-
etara ere zabaltzen joan zena. XI. mendean Gregorio VII.a Aita Sainduak betekizun bihurtu zuen Eliza katoliko guztian eta, horretara, kristau guztiak behartuta zeuden urtaro bakoitzaren hasierako lehen astea asteazken, ostiral eta larunbatean barau egitera. Hau da, Hausterre-egunaren, Mendekoste-egunaren, irailaren 14aren eta abenduaren 13aren ondorengo astea asteazken, ostiral eta larunbatak.

Horrela, ba, aurtengo tenporak

data hauetan dira (edo izan dira):

1.a: otsailak 28 eta martxoak 1 eta 2.

2.a: maiatzak 29 eta 31, eta ekainak 1.

3.a: irailak 18, 20 eta 21.

4.a: abenduak 18, 20 eta 21.

Barau eta limosna egiteko tradizioa galdu bada ere, beste tradizio bat joan da gorpuzten gure artean; alegia, tenporetan egiten duen haizea urtaro osoan zehar nagusitzen omen delakoa. Horretarako, egunero egiten duen eguraldia behrtu behar da eta bereziki nola gelditzen den haizea (eguzkiarekiko) gaueko hamabietan. Asteazkeneko haizeak urtaro horren lehen hilabetea nolakoa izango den adierazten du; ostiralekoak bigarren hilabetea; larunbatekoak hirugarrena.

Pello Zabalen ustez, zientifiko ez dago ezer frogatuta, kointzidentziak, hala ere, handiak dira.



HITZALDIA
+ DIAPOSITIBAK

LURRAREN ETA LURRAZPIKO UREN KUTSADURA

HIZLARIA:


IMA MUGERZA

Geologian lizentziatua

Ekainaren 13an, osteguna

Kultur Etxean

Arratsaldeko 7etan



ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E.




LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Kaso egiten al diezu tenporei?



IÑAKI CRESPO
40 urte, dendaria

Bai, bete-betean ez, baina gustatzen zait nola geratu diren jakitea. Udarako ez dut ezer entzun baina nire ustez bero handia egingo du.



VICTORIA MEDIAVILLA
64 urte, etxekoandrea

Ez, eta gainera ez dut ulertzen nola den tenporen kontua. Entzuten diot jendeari komentatzen baina telebistan gehiago asmatzen dutela uste dut.



FELIX ALVAREZ
37 urte, soldatzailea

Bai, normalean asmatzen dutela uste dut. Aurten oraindik ez dut ezer entzun baina eguraldi ona egitea gustatuko litzaidake.



NIEVES MARTINEZ
40 urte, etxekoandrea

Ez dut gehiegi sinesten, hala ere, etxean komentatu izan dugu. Telebistan ere ikusten dut kuriosidadez baina ez dute gehiegi asmatzen.



JOSE ANTONIO CID
40 urte, pintorea

Zer dira tenporak? Nik eguraldiari ez diot kasurik egiten, berdin zait euria edo eguzkia egin. Hori bai, ez dezalaegun hauetak sargoririk egin.



DOLORES ETXEBERRIA
47 urte, etxekoandrea

Bai, asko gainera. Bete-betean asmatzen dute. Udarako Pello Zabalak esan duenez, eguraldi nahasi xamarra dator, eguraldi ona eta txarra, dantetik.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

BARREn **MAKETATZAILEAK**

behar dira

Maketazio ikasketak egin badituzu edo/eta gai hau interesatzen bazaizu, pasa BARREn-etik ekainaren 14a baino lehen.

■ Iratxera ibilaldia Jubilatuen Egoitzarekin

Hilaren 20an, osteguna, Jubilatuen Egoitzaren eskutik, Lizarra ondoan dagoen Iratxeko monasteriora bisitaldia egingo dute jubilatuek. Goizeko 8,15etan Elgoibartik aterako dira, 9,15 alderako atsedena egiteko Etxarri-Aranazen. Urbasa ikusi eta Iratxeko hotolean hamaiketako egingo dute. Eguerdian Lizarra bisitatu eta 2etan bazkari Iratxen. Arratsaldean Gasteizera joango dira eta 8,15etan etxerako itzulia egingo dute. Izena emateko Jubilatuen egoitzara zuzendu.

■ Jubilatuetako karta joko lehiaketa amaitu da

Jubilatuen Egoitzak antolatutako karta jokoen txapelketa amaitu da eta hauek izan dira irabazleak: musean Jose Urkidi eta Jose San Martin izan dira irabazleak eta txapeldunordeak Antonio Eugi eta Santiago Aramendi. Tutean Serafin Morgado eta Jesus Santamariak irabazi zuten eta hauen atzetik Jose Irueta eta Isidoro León sailkatu ziren. Briskako txapelketan M. Jesus Saenz eta M. Saenz geratu ziren txapeldunak eta Amadora Martínez eta Lucia Martínez txapeldunordeak. Azkenik, puntuan, J. A. San Martin eta Antonio Frango izan ziren irabazleak eta Dominga Astigarraga eta Maria Astigarraga bigarren sailkatuak.

■ Ikastolako bi talde, Gipuzkoako finalerdietan

Ikastolako "Ikas-gorri" eta "Ikas-beltz" taldeek Gipuzkoako eskubaloi txapelketako finalerdiak jokatu dituzte larunbatean, hilak 8, Donostiako kiroldegian. "Ikas-beltz" taldekoak "Telleri" taldekoen aurka arituko dira eta "Ikas-gorri"koak "Askolte"ren aurka. Irabaziz gero, finalak jokatu dituzte igandean. Bestalde, "Ikas-Dodotis" taldekoek Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten baina arabarren eta bizkaitarren aurkako partidua biak galdu egin zituzten. Larunbatean azken partidua jokatu dute, Nafarrokoen kontra.



Herri Eskolak ikasturte amaierako jaialdia egin zuten pasa den ostiralean Herriko Antzokian. Lehendabizi 2-3 urteko haurren saioa izan zen eta segidan 4-5 urtekoena. OHOk 1. mailatik 8era bitarteko ikasleen jarduna etorri zen ondoren. Besteak beste, dantza, antzerkia, abestiak eta olerkiak kantatu zituzten Herriko Antzokia bete zuten ikasle eta gurasoen aurrean.

Europako nekazal ordezkariak bisitan izan dira Elgoibarren

Europar Elkartearen Now programaren barruan dagoen Violeta izeneko taldeko partaideak Elgoibarren izan ziren joan den astelehenean. Violeta proiektua Europako herrialde hauetan nekazal turismoa sustatu eta eragiteko egitasmo bat da, DEBEMENek (Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkarteak) Frantzia, Grezia eta Italiako kideekin batera bultzatzen diharduena. Iaz, elkarlanean burutu zuten Frant-

zian formazio ikastaroa eta egunetan emakumeak hezitzeko ikastarotan Deba Beheko hainbat emakume parte hartzen ari dira. Halaber, programako kide diren Europako sei herrialdeotan metodologia berdina aplikatzen ari dira buru belarri. Izan ere, dagoeneko metodologia hau Salvadorren martxan jarri dute eta herrialde hartako ordezkaria, Gloria Guzmán, Elgoibarren izan zen esperimentziaren berri emateko.



Etxebizitzen prezioaren aurrean, kexu dira gazteak

Elgoibarko Gazte Asanbladak, Euskal Herriko Gaztetxeek eta Etxe Okupatuen Batzarrak, okupazioa gogor zigortzen duen kode penal berriaren aurkako kanpainaren barruan, idatzi bat kaleratu dute. Besteak beste, gazteek etxebizitzak erosteko duten zailtasunak azaltzen dituzte; hortaz, “etxebizitza bat erostea luxua denean okupatzea eskubide” bihurtzen dela baieztatzen dute. “Azken bost urteotan Udalak ez du ezer egin etxebizitza eskuratzeko zailtasunak arintzeko”. Idatziaren arabera, Elgoibarren 400 etxebizitzatik gora zeuden hutsik 1991an. Era berean, Udalaren jarrera salatzen dute “interes

ekonomikoen alde” egoteagatik eta azken 5 urteotan “etxebizitza sozial bat bera ere eraiki ez izanagatik”. Gazte Asanbladakoen iritziz, “eraiki diren etxeak gainera, ez dituzte herritarren beharrak asetzen eta HBren iritziz oso bideragarriak ez diren plan urbanistikoetan, eraikin bakarra (62 etxebizitza) izango da babes ofizialekoa”. Honen aurrean, Gazte Asanbladakoen ustez, zilegi



Osasunaren jaia ospatu zuten hiru ikastetxeetako 3., 4. eta 5. mailako 240 bat ikaslek. Osasunkumeren kanpainaren barruan, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak eta hiru ikastetxeek antolatutako jaia goizeko 09,30etan hasi zen Mintxetan Atxutxiamaikako begiraleen ardurapean. Goiza jolasean pasatu ondoren, bazkaldu egin zuten Mintxetan eta arratsaldean Garantia Sozialeko sukaldariek zumo naturalak egiten irakatsi zieten Plaza Handian. Arratsaldean Azkona musika taldearekin dantzaldia izan zuten haurrek eta hauen gurasoei zuzenduta, hitzaldia eman zuten Osasunkumeko arduradunek kanpainaren berri emateko.

■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 14, odola aterako zaie P.M. Urruzunoko Odol Emaileen egoitzan aurrez deitutako herritarrei. Arratsaldeko 6,30etatik 8,30ak arte egongo da zabalik egoitza.

■ Mendi Itzulia

Morkaikok antolatuta, Elgoibar mendirik mendi zeharkatuko dute herriko mendizaleek domekan, hilak 9. Morkaikok duela hiru urte berreskuratu zuen mende hasieran Arrillaga medikua zenak sortutako ohitura. Goizeko 6,30etan Plaza Handitik aterako dira mendizaleak Karakate aldera. Ondoren egingo duten ibilbidea hauxe izango da: Hirukurutzeta, Urnobotza, Altzola, Bioin, San Migel, Morkaiko, Kalamua eta Elgoibar. Indarrak berreskuratzeko aldera antolatzaileek salda eta txorizoa banatu dute atsedenguneetan. <datoren ostiralean, Aconcaguari buruzko diapositibak emango ditu Luky Arakistainek eta 16an Finalistaren eguna ospatuko du Morkaikok San Pedron.

■ Itoitz-era joateko autobusa larunbatean

Elgoibarko Gazte Asanbladak Itoitzeko Koordinadorak egindako deialdiari erantzunez, Iruñean izango den manifestaziora joateko autobosua antolatu du. Itoitz-eko obrak gelditzeko eta elkartasuna adierazteko asmoz, Madalako parketik aterako da autobusa arratsaldeko laurak laurden gutxiagotan, bihar, larunbata, hilak 8. Era berean, “Solidarioak” aske utz ditzaten manifestuak sinatzeko Gazte Asanbladakoekin harremanetan jarri.

■ Geologia hitzaldia

Elgoibarko Izarraren eskutik, geologia hitzaldia izango da ostegunean, hilak 13, 7etan Kultur Etxean. Geologian litzentziatua den Imma Mugerza elgoibartarrak lurraren eta lurrazpiko uren kutsadurari buruz hitz egingo du, kasu praktikoak bai eta Elgoibarko uren kutsaduari buruzko adibideak ere azalduko dituelarik.

Antxon Alonso:

"Seguruak saltzeko armarik onena amistadia da"

Bokazioari kasu egin izan balio, kazetaria izango zen Antxon Alonso. Halere, Eskoriatza aldera jo zuen, egun erdiz Magisteritza eskolan ikasi eta gainontzeko denbora Alecop-en lan eginez. 31

urteko elgoibartar honek, ordea, ez du sekula irakaskuntza jorratu. Oso gazte salmenta munduan sartu zen eta gaur egun, UAP (Unión de Aseguradores de Paris) enpresako inspektorea da.

- Inspektorea zara. Zer da hori?

- Inspektore komertziala da berez izena. Inspektoriak helburu komertzialak ditxu eta helburu horiek lortzeko hainbat agente bere esku. Nik Azpeitxin, Elgoibarren, Eibarren, Bergaran eta abar ditxut agentiak, 9 guztira. Ni horien koordinatzailea, animatzailea, kaptatzailea... naiz.

- Kaptatzailea ere bai?

- Bai.

- Eta horrelakoetan intuizioak zein toki du?

- Nere kasuan asko. Batzuetan ez dakizu zergatik aukeraten dozun pertsona bat baina zeozer espeziala ikusten diozu eta horren arabera eitzen dozu aukeraketa.

- Salmenta munduko zerk erakarri zintuen?

- Ikasketak amaitxu eta nik banakixan irakaskuntzan lan eixia ez nabala nahi. Salmentena interesantia iruditxu jatan, tipo batekin entrebista bat egin eta harek esan zian ondo lan ein ezkeru diru asko irabazi zeikela. Karamelo ona saldu zian. Konbentzitu eta holaxe hasi nitzan.

- Sekula uzteko tentaziorik?

- Ez, azkenian bizio



"Aseguru bati esker talde baten bitartez pertsona baten zorte txarra kubritzen da"

bat da. Geruo eta hobeto eitzen ditzuzu gauzak, teknikak daude, konturatzen zera berba ere ez dala gehixegi ein bihar, gauzak garbi euki eta horiek baka-rrik esan...

- Profesional bihurtzen zara.

- Bai, beste edozein lanbidetan bezela.

- Zein da saltzaile baten armarik onena?

- Amistadia, argi dakat. Eta hori ez danielan, lau hitzetan zure mezua argi azaltzia. Hitz asko esaten baditxuzu, komeni

ez dian gauzak eskapatze-ko arriskua dao.

- kontaktu asko izan behar da, beraz.

- Bai, hasieran seguruak inguruko jendiari eitzen dizkiozu, jende ezagunari. Ahoz ahoko komunikaziak oso ondo funtzionatzen dau eta horregatik, zenbat eta kontaktu gehixo euki, orduan eta hobe.

- Tratu asko ixten al dira jatorduen bueltan?

- Geruo eta gutxio. Lehen, gainera, toki inportantietan eta kriston bazka-

rixak izaten zian. Oin, gero eta gehixo eguneroko menuen bueltan ixten dia tratuak.

- Jende ezagunari egin dizkiozu aseguruak.

- Bai, Etxeberriari, gero Unanue pelotarixa gure taldean dao lanian, Imanol Mujika remontistia ere... Eta Realakin ere zeozer badakagu.

- Kirolari asko, beraz.

- Bai, gainera oso aproposak dia. Deportistak batetik denboria dake eta bestetik kontaktu asko, oso konpatiblia da deportia eta seguruak saltzia.

- Ihes egin dizun norbait?

- Oin dala urte batzuk Olano euki nabian eskuetan baina enpresan esan zien ondiok ez zala ezaguna.

- Ezin al gara aseguru gabe bizi?

- Ez. Aseguru bat azken finian da, talde baten bitartez, pertsona baten zorte txarra kubritzia.

- Aseguruak saltzen dirua irabazten al da?


- Bai, ona bazera diru asko irabazi laike.

- Zure lanak duen alde-rik txarreana?

- Seguruen munduan lan eitzen dogunak daka-gun fama txarra.

FERIASALTSA

Hil honetako gaia purinak dira. Ganadua dagoen baserrietan behin edo behin izan daiteke arazoren bat edo beste abereen txiza dela eta. Horiei aurre egiteko, Mendiko Nekazaritza Elkarteek proiektu bat jarri dute martxan. Horren arabera, kamoi batzuen bidez txiza jaso eta zelaietan zabalduko da. Hau guztia jakin nahi duenak barruko orrialdean izango du



informazio gehiago.

Maiatzeko feria, berriz, ohi bezala joan zen.

Eguzkitsua eta jendez beteta. Ganadu ederrak ikusi ahal izan genuen.

Lokal soziala Urruzunon

Maiatzaren 31n inauguratu zen Urruzuno bailarako lokal soziala. Inaugurazioan izan ziren Gillermo Garate, alkatea, eta Iñaki Txueka, Nekazaritza eta Ingurugiroko diputatua. Lokal soziala auzoko baserritarrek eraiki dute eta herriko beste bailaratan bezala, hemen ere auzotarrek elkartzeko txoko bat eskuratu dute.

Lokal sozial berriarekin batera, Urruzuno bailarara ura eraman da eta horren inaugurazioa egun berean izan zen. Honako obra honek 36 milioiko aurrekontua izan du eta aurrera begira gauza bera egin nahi da San Pedron ere.

Ekitaldi berean, Deba Beheko nekazal guneetan aurten egingo diren proiektuen berri eman zen.

DEBEMENek gestionatuko ditu eta 89 milioiko aurrekontuaren erdia Diputazioak jarriko du eta gainontzekoa Deba Beheko udalek. Besteak beste, Izarraitz Bizirik proiektuaren martxarekin jarraitu nahi da, ura eraman nahi da auzoetara bai eta pistak eraiki eta berritu ere.



Izan al duzu inoiz arazorik ganaduaren txizarekin?

Purinak zabaltzeko zisterna

Purina gehiegi sortzeak hainbat arazo ekar ditzake. Arazo horiei irtenbide bat emateko asmoz, Gipuzkoako Mendi Nekazaritzako Elkarteek zerbitzu bat antolatu dute, izan ere, 13.000 litroko zisterna duen kamioi bat eta mangeren bitartez purina garraiatu eta zabaltzeko lanak egingo dira.

Purina baserriko zelaietan edo beharko litzatekeen beste toki egoki batzuetan zabalduko da eta zerbitzu hau honako arauen arabera eskainiko da:

1.- Kamioi zerbitzua 5.000 pta orduko (gehi BEZa) kobratuko da, denbora kamioia baserrian dagoenetik kontatzen hasiko delarik.

- Irteera 1.000 pta. kobratuko da.
- Baserritarrak purina zabaltzeko laguntzaile bat jarriko du.

- Purina botatzeko zelaia baserritarrak berak aukeratuko du. Ezin badu, dagokion Mendiko Nekazaritza Elkartera zuzendu beharko da.

- Kamioiaren pisua zisterna beteta dagoela 26.000 kilokoa dela kontuan hartuta, bideak kamioia ibiltzeko modukoak izan beharko dira.

- Baserritarra zerbitzu hau kontratatzeko Mendi Nekazaritzako Elkartera edo kamioilariengana zuzendu beharko da.

Kamioilaria: Jose Angel Salegi Arriola: 19 90 99 eta 989-58 59 05

DEBEMEN: 74 40 67

Angel Loiola

DEBEMENeko lehendakaria



Jose Luis Urain, 39 urte
Otso-Txiki (San Pedro)

Sekula ez dot euki problemarik ganauan txizakin. Parrilla modukuetan eitxen dabe txiza eta gero tubuetan juten da basurara, mendixan behera. Batzutan odolakin botatzen dabe txiza eta ganaua galdu ein leike.

Esteban Telleria, 45 urte
Artaxa baserria (Albistur)

Neronei ez behintzat. Ganaua ikuiluan eukitzen dot. Kaka zimaurreako aprobetxatzen dou eta txiza mangera batekin zabaldu zelaixan. Suertau leike itxurri batera jun eta kontamintzaia baina ez da




Jose M. Altana, 65 urte
Lizundia-Azpikoa (Arriaga)

Aspaldi baiian, euki naban. Txiza odolakin eitxen zaban eta, ganaua azkar amaitxu leike hola. Ostantzian, txiza kanpora botatzen

dou, kanala dakau eta handik behera urtetzen da.

Jose M. Murua, 70 urte
Dorronsolo (Atxondo)

Lehenokortan bertan geratzen zan txiza guztixa. Azkenengo 40 urtian urakin arindu eta linpiezia eitxen da.



Guk potzo beltza dakau eta hara juten da etzeko txiza dana.

Ramon Gorriti, 70 urte
Urruzuno-Berri (Urruzuno)

Nik sekula, gurian direkto juten da mendira urakin nahastuta, librian. Baserrixa beheian dauanian, itxurriren bat onduan egon eta izan leike problemarik, kontuz ibili bihar.

Ostegunetan Merkatu Plazara urreratu eta lehenego solairuan baserritarrei produkturen bat edo beste erosteko ohitura duenak ezagutuko du seguruenak Pakita Askasibar. Etxeberri-Metala baserrian jaioa, hantxe bizi da senarrarekin oraindik ere. Duela hiru urte utzi zioten ganaduari eta egun, ortuan bakarrik aritzen dira. Halere, gustura bizi da baserrian Pakita.



Duela 68 urte erosi zuten subastan Etxeberri Metala baserria.

eskatila gaztea zenetik ezagutu izan du baserri mundua Pakitak. Beharbada hartara ohitu zelako, ganadurekin batera eta bestera ibil-tzea betidanik gustatu izan zaio. Halere, duela hiru urtetik ez dute bat ere ganadurik baserrian, “seme-alaba guztiak kalera alde ein zeben eta guk ezin gendun baserixan jira guztia ein”. Dena dela, oraindik orain kortan begiratu eta behiak eta ardiak aurki daitezke bertan. Arrazoia? Errenteroa dutela, “mendaroko bati lagata diou kortia eta zelaixak. Bere baserrixan ez daka nahiko leku ganadu guztixa eukitzeko eta gurian errentero dao”.

Kotxerik ez

30 urtean egunero-egunero jaitsi izan da Pakita kalera esnea partitzera, “astuakin lelengo eta karruakin gero”. Gaur egungo bidea elegantea da berak ezagututakoaren aldean baina, kotxerik ez du andragizonek, “guk kalera bajatzeko beste baten laguntzia bihar!”.

Pakitaren gurasoak zirenek duela 68 urte erosi zuten subastan Etxeberri-Metala baserria, “8.000 duro pagauta. Diru haundixak zian ordurako!”. Lasai-lasai bizi da gaur egun Pakita, “ortuan ibili piskat eta ostantzian, nahikua lan pilatzen da etxian, janarixa

dala, plan-txia dala.... Edozer!”. Orain 20 urte Madrilera joan ziren, “autobusian beste 20 parejakin. Aspaldiko partez urten ginan oporretan. Etxatan gustau haura, Euskal Herrixa nahixo nik. Oin ere nunbaitxera jutekotan, hemen inguruan geratzia eskatuko neuke”.

ETXEBERRI METALA

- **Auzoa:** Arriaga
- **Bizilagunak:** Pakita Askasibar, 68 urte eta Jose Arrillaga, 76 urte.
- **Lur hedadura:** 12 hektarea
- **Ganadua:** Gaur egun ezer ere ez
- **Produktua:** hortutik jasotakoa.

AUZOKOekin DANTZAN

14 urterekin atera omen zen lehenengo aldiz baserritik Pakita. Auzoko baserri bateko lagunek tokadisko bat omen zuten eta dantzaldiak antolatzaren zituzten, “ahizpa eta bixok juten ginan. Han diskua ipini eta dantza mordo bat eitxen gendun, pasodobiak eta...”. Baina onenean zeudenean etxera bueltatu behar, “ilundu baino lehen etxeratzeko aginduta ziogun aitxari eta”.

Irratiaren konpainian

Telebista ez du bat ere gustuko Pakitak, “zeozer ikusteko badao, ala? Nobelak egoten dia batzutan baina danak dia edo tiruak edo eztakit zer...”. Sukaldean, ordea, baita gu bertara joan ginenean ere, irratia topera jarrita zegoen, “Arrate entzutia gustatzen jata. Hor bai ipintzen ditxuela gure sasoiko musika politxak!”.

Paisaia zuri-zuri makina bat bider ezagutu izan dute Etxeberri-Metala baserrian, “baina beste tokitxan baino gutxixoa. Aspaldixan apenas, aurten bota dau elurra kalera bajau arte baina ostantzia...”. Dena dela nahiago du eguraldi eguzkitsua, “horrek sartzeizu benetako bizipoza!”.

Berbetan dexente denbora aritu gara eta baserriak ba omen du gauza bat Pakitari gustatzen ez zaiona, “bi egon ezkeron ondo, baina bakarrik bizitzeko txarra da. Baserrixak bildurra ematen dau!”.

Argazkia ateratzeko asmoa geneukala eta, laister asko esan zigun loreak atera behar zituela balkoira, “asko polizten dabe. Lorak politxak egoteko mimau ein bihar jakue, ura eta zimaur goxia bota”.

Gloria Guzman:

"El Salvador-en,
emakumeona gerrarik
gabeko iraultza izan da"



31 urte dituen emakume hau El Salvador-ekoa da. Orain hilabete inguru Emakunderen bidez eskuratu zuen beka bati esker Euskal Herrira etorri zen. Aste honetan DEBEMENekin dabil, besteak beste nekazalturismoari buruzkoak ezagutzeko. Gloria Hezkuntza zientzietan lizentziatua da eta horrez gain hainbat ikastaro ere egin izan ditu Colombian, Panaman bai eta beste zenbait herrialdetan ere. "Mujeres por la dignidad y la vida" elkarteko kide, hemengo esperientziak jaso eta bertara eraman nahi ditu, El Salvador-eko emakumeen errealitatean aplikatzeko asmoz.

- Hilabete daramazu Euskal Herrian.

- Bai, apirila amaieran iritsi nintzen eta ekaina bukaerara arte geratuko naiz. Lan egiteko era eta estrategiak jaso eta El Salvador-en mar-txan jartzea da ideia.

- Nekazalturismoa, esate baterako?

- Bai. DEBEGESA ezagutu nuenean hirien bilakaerari buruzko esperientzia jaso nuen. Egunotan DEBEMENen nekazal munduari buruzkoak jasoko ditut. Nekazalturismoa gauza erabat berria izan da niretzat eta oso garrantzitsua. El Salvador-en nekazaritza da ekonomiaren iturri nagusia eta landu beharreko sektorea.

- Zein da emakumearen egoera El Salvador-en?

- Batez ere nekazal guneetan bizitza maila oso bajua da, oso emakume gutxi dute eskolara joateko aukera, ez dago planifikaziorik, batz best bost seme-alaba izaten ditu emakume bakoitzak... Hitz batean, emakumeak, behartsuen artean behartsuenak dira. Hemen gu-txienez instituzioetatik laguntza ematen da emakumearen egoera hobetzeko. Eta hori aurrerapauso garrantzitsua da.

- Halere, emakumeek ba al dute kontzientziarik?

- Sentsibilitate handia dago eta emakumeek jakin badakite irakurtzen eta idazten ez jakin arren, hitzegiten eta pentsatzen duten bitartean, edozer egiteko gai direla.

- Elkartean?

- Bai, emakumez osatutako elkarte asko dago. Horietako batzutan emakumeak elkartu eta ustez gauza sinpleetat hitzegiten dute: hilerokoaz, seme-alabez, sexualitateaz, bizi duten egoeraz... Hitzegiteko beharra dago eta horregatik, kontzientzia sor-tzea erraza

da, berez ematen den zerba it da.

- Emakumeen iraultza moduko bat?

- Gerrarik gabeko iraultza. Kontuan izan behar da gerra osteko garaia bizi dugula eta beharbada emakumeona izan da orain artean gertatu den iraultzarik handiena.

- Gizonezkoek entzuten al zaituzte?

- Ez da erraza. Begira, El Salvador-en emakumeak ez gara lurraren jabe. Horren ondorioz, ezin dugu krediturik eskatu, esaterako, nolabaiteko garantia eskatzen baitute. Horrelako gauzak ikusita, garbi dago diskriminazio positiboa egiten duela gobernuak, programa politiko berezi bat finkatuz. Gutxienez guk elkartzea eta talde bezala antolatzea lortu dugu, hitzegi izan dugunean en-tzun izan digute. Halere, herri txikietan, elkarteetan parte hartzeko edo bileretara joateko, emakumeek senarrei baimena eskatu behar diete oraindik, gizonezkoen artean sozialki onartua dago bakoitzak bi edo hiru emakume izatea...

- Zerekin egin duzu topo hemen?

- Asko gustatu zait politikan dagoen pluraltasuna, alderdi ezberdinen ordezkapena. Gizonezkoak emakumeen arazoez kontzientziatuagoak ikusi ditut eta, garran-tzitsuena, zuek aukeratzeko askatasuna duzue. Etorkizunari bestelako ikuspegi batekin begiratzen diozue. El Salvador-en emakume baten ardura hurrengo egunerako jateko zerba it izatea da.

- Eta zer daukagu guk zuengandik ikasteko?

- Nik edozein tokitan nagoela ere, asko baloratzen dut guk lortu dugun elkartzeko eta antolatze gaitasuna. Dena dela, ni hona ikustera eta ikastera etorri naiz irakastera baino.

Jose Mari Aranzamendi

Edari banatzailea



- **Jatorduak urarekin ala ardoarekin?** ▶ Etxian baldin banao urakin eta kanpuan arduakin.
- **Ardoa al txanpaina?** ▶ Ardua.
- **Egarrria kentzeko edari bat?** ▶ Ura.
- **Eta ajea?** ▶ Horretarako onena ibiltzea.
- **Azkenengo mozkorra noiz?** ▶ Ez naiz gogoratzen.
- **Elgoibartarrok zer edaten dugu gehien?** ▶ Orainguak garagardua eta lehenguak ardua.
- **Nor gonbidatuko zenuke trago bat hartzera?** ▶ Edozein.
- **Zer ospatzeko nahi zenuke topa egitea?** ▶ Euskaldunok aklaratzia ospakizun ona izango litzake.
- **Poteorik egiten al duzu?** ▶ Bai, iluntzean.
- **Zein edaritan bainatuko zinateke?** ▶ Uretan.
- **Zer konprimituko zenuke lata batean?** ▶ Osasuna.
- **Dietarik jarraitzen al duzu?** ▶ Ez.
- **Bizitzako zertaz mozkortuko zinateke?** ▶ Osasunaz eta pakiaz.
- **Zure bizitzako momenturik pozgarriena?** ▶ Nere ezkontza eta alaben jaiotzia.
- **Amets bat?** ▶ Ametsak lo nauanian bakarrik gustatzen jataz eitxia ze, bestela, ostikadak hartzeitxuzu.
- **Banatzea ala hartzea?** ▶ Banatzia ona da baina banatzeko euki ein bihar eta hartzeko nork emana izan bihar.
- **Zer gustatuko litzaizuke banatzea?** ▶ Ona izan ezker, edozer.
- **Muztioa bezain goxoa den zerbait?** ▶ Familixia.
- **Bizitzako zer garbituko zenuke uretan?** ▶ Momentu on guztiak, garbixauak egon daitezen.

UDAKO FESTAK

DOINUA:

Esne saltzailearena

Ekainean hasi
ta irailera
hamaika bilera
batzuk mendira ta
besteak kalera
beste batzuek berriz
itsaso aldera
nahiz ta diru aldetik
etorri galera
festak ongi pasatzen
saiatuko gera (Berriz)

Lau bat hilabetetan
bazterrak jaietan
une alaietan
berdin herri haundi ta
auzo txikietan
gainera jende asko
laister oporretan
esango dizuet nik
zer pentsatu detan
kanpora joan gabe
gelditzea bertan. (Berriz)



ZIARDA

B
E
R
R
I
A
K
2
O
T
A
N



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

HB eta Sigmako lantegia

HBk asteartean emandako prentsaurrekoan Sigmako lantegiari buruz hitzegin zuen. "Sigmaren gaiari buruzko jarraipena egingo zitzaiola onartu zuen Udalak HBk aurkeztu zuen emendakin baten bidez eta HB, PNV eta PSOeren aldeko botoekin. Era berean, lur industrial publiko bihurtzeko asmoa zegoen". Martxo-ko plenoan HBk BARRENen agertutako informazioari buruz galdetu bazion ere alkateari, erantzuna ez zuten maiatzera arte jaso. "BARRE-Neko informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, enpresa handi batek Sigma erostea nahi zuen, enpresa txikiak tokia izan zezaten bertan. Alkaterean erantzuna Sigma likidatzen ari zela izan zen". HBkoen arabera "langileen eta erakundeen arteko harremanak egon badaude baina ez dago akordiorik bozeramalea nor izango den edo lurrekin zer egingo den erabakitzerakoan". Alderdi honetako kideek adierazi zuten, "alkatea SPRIren bitartez lur industrial publikoaren bidetik jotzearen aldekoa da, bide hori oso zaila den arren, eta, bitartean, enpresa txikiak tokia utziz. Orain hala ere, inpassa batean gaude", gaineratu zuten HBkideek. HBren ustez, Sigmako lurren gaia herri guztiari dagokio, "eta ez alkateari bakarrik". Sigman 36.457 m² lur industrial dago, horietatik 13.000 okupa daitezkeelarik. Gainera Olaso-ko industrialdearekin bat egiten du eta errepidera irteera zuzena dauka. "Gainera, DOTen irizpideekin bat dator". HBren ustez, Sigman lur industrial publikoa sortzea "Elgoibarko geroaren alde jotzea da, horregatik herri guztiari dagokio gai honen inguruan eztabaidatzea".

Udalak Cubaren aurkako enbargoa salatu zuen

Joan den ostiralean izan zen Plenoan, beste batzuen artean, Cubari buruzko mozioa eztabaidatu zen. Ezker Batuko zinegotzia den Juan Ignacio Ausinek, EEBBek Cubari ezarria dioten enbargoa salatu zuen bai eta Helms-Burton legea ere. Lege honen arabera, Fidel Castroekin nolabaiteko harreman komertzialak ezartzen dituen herrialdeari zigorrak ezarri ahal zaizkio. Mozioak EAJ-PNV, EA, HB eta PSE-EEren aldeko botua izan zuen eta PP aurka azaldu zen.

Sigmaren egoera

Bestalde, Herri Batasunak alkateari Sigmaren egoerari buruz galdetu zion. Gillermo Garateren hitzetan, "Hazienda Forala, Fogasa, Seguritate Soziala eta Eusko Jaurlaritzako Industria Saila harremanetan daude enpresarekin. Dirudienez, Sigmako likidazioaren dirua banatzeari buruz lehen pausoa negoziatu dute". Sigmako pabiloi eta lurrekin

zer egiteko asmoa dagoen galdetzean, proposena "horiek guztiak enpresa handi batek eskuratzea" dela adierazi zuen alkateak, "halere, momentuz inork ez du interesik azaldu eta dagoeneko enpresa txikiak Sigmako terrenoetan kokatzeko eskaera luzatu dute. Enpresa hauek ez dute ahalmenik Azitain edo Itziarrera joateko horregatik, bitarteko bat izendatzea komeni da lehenbailehen irtenbide bat aurkitzeko".

PSE-EE alderdiko zinegotzia eta Sigmako langile ohia den Jose Manuel Herreroen hitzetan, "ondasunak kontrolatzen dituen pertsona bat dago baina ez du ahalmenik erabakiak hartzeko instituzioek egin behar dutena jakin arte". Herrero esan zuenez, "enpresaren porrota onartu eta bi hilabetera, epaitegiak bi sindiko izendatuko ditu eta hauek bai izango dutela ahalmena lokal eta terrenoekin zer egin behar den erabakitzeko".



OASU

Ireki berria, Zatoz!

San Bartolome, 28 behea - ELGOIBAR - Tel. 74 35 02

**OPARIAK
ARTISAUTZA**

GAZTEENTZAKO ERROPA

Altzolako Andonaegi dorretxea

■ XVI. mendeko erdi aldetik XVII. mendeko lehen hamarkadara arte Martin Andonaegi izen-abizena zeramaten hiru belaunaldi bizi izan ziren: aitona, aita eta semea. Andonaegi II.ak isladatu zuen hobekien garai hartako Altzola, Gipuzkoako merkatalgune garrantzitsu izendatuz.

■ Familia honen lonjak bailara alde batetik bestera zeharkatzen zuten merkataria eta merkatalgaien (burdinkia, burdina, garia, arraina, artilea...) historia jasotzen du neurri haundi batean. Jose Antonio Azpiazuren hitzetan, hau guztiaren azterketak aro modernoaren hasieran Altzolak izan zuen garrantzia erakutsiko luke.


■ Martin Andonaegik Bizkaiko burdinkia ekarri ohi zuen Deba arroara. Sevillara burdina, tresnak eta armak bidaltzen zituen. Bertan, Sevillan, Pedro izeneko anaia zegoen hark artekari lanak egiten zituelarik. Martinek, berriz, errementari eta burdinoletako artisauekin hemen egiten zituen tratuak besteak beste, burdinezko errejak eta arkuak, goldeak, aitzurrak, aizkorak, mosketeak eta arkebuzak erosiz.

■ Zenbait kasutan, Martinek berak aurreratzen zien artisauei burdinkia, burdina eta dirua. Hau gutxi balitz, honelako enpresa batean Martin II.ak pertsonalki hartu zuen parte. Izan ere, eskarmentua bazuen, Armadako maestre izana zen eta.

PELLO ARRIETA



Antonio Lucha Jumilla (1931-1991)



- Jaeneko Cazorla herrian jaio zen 1931ko ekainaren 25ean.
- Bost anai-arreba ziren familian. Ume sasoiak Cazorlako mendietan pasatu zuen, eskola gutxi xamar ikasi zuelarik.
- Geroago Jaeneko beste herri batera joan zen, Santo Tomé izenekora. Traktorearekin nekazal lanetan jardun zuen bai eta olio fabrika batean ere.
- 1957ko martxoaren 16an etorri zen Elgoibarrera Ziaran fundizioan "mol-deadore" lanak egitera. Gaixotu zenean erretiratu egin zen.
- San Bartolome parrokian ezkondu zen Marina Linaresekin eta bere bi seme-alabak ere bertan bataiatu zituzten.
- Gizon apala zen. Asko gustatzen zitzaion perretxikoak batzea. Baina gehien-gehien futbola zen bere gogokoa. Elgoibarko mendietan pasiaran ibiltzea atsegina zitzaion.
- Errosario kalean bizi izan zen beti.
- 1991ko azaroaren 6an hil zen.

JUANITO GOROSTIZA



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Eskolarteko jokoak

Pasa den larunbatean, Udal Patronatuak herriko hiru ikastetxe eta kirol kluben laguntzaz antolatzen duen Eskolarteko Jokoen sari banaketa egin zen Mintxetan. Partehartzaile guztiek, 1.000tik gora denera, Udal Patronatuaren kamiseta jaso

zuten. Urrian hasi eta ekainean amaitzen diren eskolaumeen arteko joko hauetan 115 talde ezberdinek hartu dute parte saskibaloian, areto futbolearen eta eskubaloian. Guztira 700 partidu inguru jokatu dituzte urte osoan zehar. Sari banaketan ez ziren izan Ikas-Lainoko neskek eta Ikas-Dodotisekoak, azken hauek Euskadiko Txapelketa jokatzeko ari baitziren. Hona hemen sari banaketan izan ziren taldeen zerrenda.

B E N J A M I N A K



IKASTRUMOI



PILAR A



IKAS ILARGI



PILAR B



MENDARO B



PILAR A



IKASZART



IKASTXINGOR



IKASZIRT



IKASEGUZKI



HERRI ESKOLA



MENDARO A

A L e b i N a K

- **Pilar B**koak Futbolean herriko lehenengoak izan dira.
- **Ikas-Gorriko** neskek hiru kiroleetan irabazi dute: futbolean, saskibaloian eta eskubaloian.
- **Ikas-Urdinekoek** bi kiroleetan irabazi dute: eskubaloian eta saskibaloian.



IKAS GORRI



PILAR B



IKAS URDIN

I n F a N t i L A K

- **Ikas-Dodotis.** Eskubaloian herriko onenak izan dira; horrez gain, Gipuzkoako txapeldunak ere bai.
- **Pilar Boomerang.** Eskubaloian hauek izan dira aurten onenak.
- **Pilar Manchester.** Izen honekin derrigor izan behar areto futbolean txapeldunak.
- Saskibaloiko txapeldunak dira **Pilar ACB**koak.
- **Mendaro D**koak saskibaloia eta futboleko txapeldunak. Saria jasotzera ordezkari bakarra joan zen.



PILAR BOOMERANG



IKAS DODOTIS



PILAR MANCHESTER



PILAR ACB



MENDARO D

Atletismoko emaitzak

Mintxeta Atletismo Taldeko benjaminak, alebinak eta infantilak Azkoitiko XIV. Eskolarteko Krosean izan ziren pasa den domekan. Guztira 720 ikaslek parte hartu zuten lasterketan. Benjaminetan Aitor Arrillaga bosgarren iritsi zen helmugara eta Alberto Fernández hamargarren. Alebinetan Javier Ausin 8. lekuan sailkatu zen eta azkenik, infantiletan, hirugarrena izan zen Angel Quintana. Nesketan Ana Etxanizek bigarren postua eskuratu zuen eta Nuria Revueltak hamabigarrena alebinen kategorian. Infantiletan, berriz, Mireia Huidobro hirugarren postuan iritsi zen helmugara eta Itziar Leiaristi seigarrenean.



Elbarrituen kirolari buruzko ikastarorik ez

“Kirola Euskaraz” kanpainaren barruan programatua zegoen elbarrituen kirolari buruzko ikastaroa bertan behera geratu da jende nahikoa apuntatu ez delako. Elgoibarren izan behar zen ikastaroa eta gaur, ostirala, zuen hasiera eguna.


Javier Quintano eta Gorka Merino

elgoibartarrak, kimikako ikaslea lehena eta fisikakoa bigarrena, Leioako Unibertsitatean urte osoan zehar jokaten den Frontenis Txapelketako irabazleak izan dira bikoteka. 19 urteko bi gazte hauek Enpresariales fakultateko bikotearen kontra jokatu eta irabazi egin zieten. Ez da hau izan txapelketan parte hartu duten lehen aldia; iaz bigarrenak geratu ziren.



EGONDO, s.l.

ERAIKUNTZA METALIKOAK
GALDARAGINTZA OROKORRA



Egoitza berria daukagu Olason. Makinariarik puntakoena eta langile eta tekniko gehiagorekin.

Olasope kalea, 3. blokea
Tel. (943) 74 34 04 - 08
Faxa: (943) 74 34 08
ELGOIBAR

Lau musika Banda elkartuko dira igandean aparteko alardean

Kilometroak 96 ekintzen barruan, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako lau Musika Bandek herriko musikazaleen belarriak gozatuko dituzte igandean, hilak 9. Elgoibarko Udal Musika Bandaz aparte, Arabako Eltziegoko Santa Zeziliaren Musika Elkarateak, Ondarroako Kresala Musika Bandak eta Nafarroako Baltierrako Udal Musika Bandak parte hartuko dute.



Goizean goiz, hamarrak aldera, banda bakoitzak auzo batean joko du. Hamaitaketo egin eta gero, Ikastolan elkartuko dira azken entsaiua egiteko. Hamabiak aldera Madalatik Plazaraino joango dira lau Bandak eta 12,30etan denek batera kontzertua eskainiko dute. Zortzi pieza izango dira: “Arraunlariak (Pasodoblea, Amena-

bar), “Hirugarren kalez kale (P. Sorozabal), “Garijoten” (Goiz eresia, Mujika), “Celedon” (kalejira, M. San Migel), “Emon Emon” (Kalejira, F. Beobide), “De San Prudencio a la Blanca” (Aranburu), “Elgoibarko kaleetatik (T. Mujika), “Jota” (M. Turrillas) eta “Agur Jaunak” (P. Etxeberria). Txandan txandan, lau Bandek joko dute.

Ondarroako Kresala

Banda gaztea da, 1983an sortua. Desagertutako herriko bandaren hutsunea berehala bete zuten, banda zaharreko kideak eta musikazale gazteak elkartuz. Jabier Ituarte da zuzendaria.

Baltierrako Udal Banda

Betidantik izan omen da Baltierran musikarako zaletasuna. 1930ean bazuten musika banda baina 1965ean desagertu egin zen. Ia 20 urtez bandarik gabe egon ondoren, Udalak banda berria sortu zuen. Gaur egun 60 kide dira, ia denak 20 urtez azpiko gazteak. 1990ko azaroaren 24an jo zuten estrainekez. Zuzendaria J.A. Morella da.

Eltziegoko Banda

1884an sortutako banda honek 1915-20 hamarkadetan Irungo Banden Lehiaketan sariak eta ohorezko aipamenak lortu zituen. 80. hamarkadaren hasieran ia desagertu bazen ere, 90.ean Pablo Gallegoren zuzendaritzapean eta Udalaren laguntzarekin garai berri bati hasiera eman zion.

Elgoibarko banda

Eltziegokoa bezala, Euskal Herriko zaharrentariko da Elgoibarkoa. 1885ean sortua. 111 urte segidan jo duen banda hau 55 kidek osatzen dute.. Hilero kontzertua eskaintzen dute Herriko Antzokian herriko zaletuen gozamenarako. J. A. Osoro da zuzendaria.



Iñaki Perez Armendiaren saritutako ipuina kalean dago

Elkar argitaletxeak Debako Udalak antolatzen duen ipuin lehiaketan irabazi zuten ipuinak argitaratu ditu. Liburuaren aurkezpena aste honetan izan da, asteartean, Donostian, Elkar argitaletxearen eskutik. “Tene Mujika” ipuin lehiaketa izenburupean biltzen dira saritutako lanak, tartean, Iñaki Perez Armendia elgoibartarrarena, bigarren saria irabazi zuena. “Saguaro artean” du izena Armendiaren ipuinak. Estilo-ariketa ausarta da Elkar argitaletzekoen iritzi. Elgoibartarraren lanarekin batera lehen saria jaso zuen Luis Fernandezek “Kontaktua”, Mikel Olano donostiarraren “Puzlea” eta Nagore Dorronsorok debarren “Buztinezko altxorrak” lanek osatzen du “Tene” ipuin bilduma.



oskorri

25. urteurrena

KANTALDI BEREZIA

25 KANTU ONENEKIN

ELGOIBARREN

Ekainaren 14an, ostirala

HERRIKO ANTZOKIAN

AITA SEMEAK

FURRA-FURRA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

ENE MAITE KATTALIN

TIRAUKI

GAZTELUGATXE

BIOLETAREN MARTXA

LANTZEKO IHAUTERIAK

...



ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra K.E.

LAGUNTZAILEAK:
Euskadi Irratia

Elgoibarko Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia

AURREZ: 1.000 pta.
(BARREN eta Elgoibarko Izarra)
TAKILAN: 1.300 pta.

Lana

❖ Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauetz. Sanitario auxiliari titulua daukat eta bi urteko esperientzia.

☎ 74 25 17 Amaia

❖ ILEAPAINZAILE BAT behar dut.

☎ 74 09 02 (goizez) Kristina

❖ UMEAK ZAINDUKO nituzke ekain eta uztailean zehar. ☎ 74 34 99

❖ Pertsona nagusiak zaindu edo sukaldian pintxe lanak egiteko prest nago.

☎ 74 36 38 Arrate

Bestelakoak

❖ Donostian bizi eta Egoibarrera kotxez bide hau egiten duen pertsona bat behar dut. Gastuak erdibana ditzakegu. **Richard.**

☎ 74 02 36 astegunak

☎ 42 84 06 astebukaerak

❖ VHS bideoen kopiak egiten ditut bai eta musika jarri ere.

☎ 74 32 94 (6etatik aurrera).

Andres

❖ Gonak josten ditut neurria eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut.

☎ 74 21 40 Konsuelo

Salerosketak

❖ ORDENADORE BAT saltzen dut. 486 DX2-66. 8 MB RAM, teklatua eta arratoia.

80.000 pta.

☎ 19 28 53 / (908) 77 53 67

Ramon

Etxebizitzak

❖ Pisu salgai San Pedron. Hiru logela, sukalde-jangela eta bainua.

☎ 74 25 94.

❖ Pisu bat salgai. Berritua. Ubitarte 3, 3D.

☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)

❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn.

☎ 74 15 22

❖ Etxebizitza SALGAI BERNARDO EZENARRO kalean.

☎ 36 17 18 Amaia (gauetz)

❖ ERROSARIO 28an pisu bat saltzen dut.

☎ 74 13 77

❖ ETXE BAT ALOKATU nahi nuke Elgoibar edo Deban.

☎ 74 05 62

❖ Errosario kalean PISU BAT ALOKATZEN DA.

☎ 74 09 74

Agurrak

❖ Mila zorion eta 9 musu handi Joanesi, hilaren 11n urteak beteko dituelako. Etxekoan partez. Ondo pasa eguna.

❖ Zorionak Nereari 6 urte egiten dituelako gaur, hilak 7. Ondo ospatu urteguna, zure ahizpa Maider eta familiarean partez.

❖ Zorionak Amaia, Alicia, Garbiñe eta Endikari, kuadrilaren partez.

❖ Ekainaren 10ean 9 urte betetzen dituen Maitane Blancori zorionak.

❖ Zorionak Eduri, alias "Huevi", ekainaren 3an 29 urte bete zituelako. Musu handi bat zure iloba Itziar eta Koldo Aldalurren partez.

❖ Zorionak Olatz Gil Epelderi, gaur hilak 7, 6 urte betetzen dituelako. Ondo pasa eta musu bat Nerearen, eta, aita eta amaren partez.

❖ Zorionak Maite Izagirri maiatzaren 27an bere urtebetzea izan zelako. Amets Izagirreren partez.

❖ Zorionak Ioritz Konderi ekainaren 1ean 11 urte bete zituelako. Bosgarren maila osoaren partez.

EKAINA

Hildakoak

- ❖ Nemesio Rebollo Dominguez, 75 urte (maiatzaren 16an)
- ❖ Angel Javier Odriozola Monje, 39 urte (maiatzaren 19an)
- ❖ Jose Otaegi Irizar, 84 urte (maiatzaren 21ean)
- ❖ Jose Ramon Astigarraga Uranga, 36 urte (maiatzaren 28an)

Jaiotakoak

- ❖ Laura Peralta Lobete (maiatzaren 1ean)
- ❖ Alex Del Río Romero (maiatzaren 6an)
- ❖ Alazne Perez Mazorriaga (maiatzaren 7an)
- ❖ Imanol Iturrino Aginako (maiatzaren 10ean)
- ❖ Tamara Molina Rolo (maiatzaren 24an)
- ❖ Amaia Palacios Lartain (maiatzaren 25ean)

Ezkondutakoak

- ❖ Arturo Andrade Arias eta Arantazu Urain Mendikute (maiatzaren 4an)
- ❖ Sergio Conde Campos eta Lucia Molina Marín (maiatzaren 4an)
- ❖ Fernando Rodriguez Santas eta Mirari Lizundia Alberdi (maiatzaren 4an)
- ❖ Jose Andres Barruetabeña Aranguena eta Maria Mercedes Villena Camarero (maiatzaren 4an)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01



7 OSTIRALA

22,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Himalaya
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

22,15 ZINEA

“Pena de muerte”

8 LARUNBATA

18,00 MUSIKESKOLAKOEN EUSKAL DANTZA SAIOA

✓ Plaza Handian

19,30-22,15 ZINEA

“Pena de muerte”

9 IGANDEA

6,30 MENDI ITZULIA

✓ Irteera Plazan

12,30 MUSIKA BANDEN ALARDEA

Partehartzaileak: Ziezoko Santa
Zezilia Elkarte musikala,
Elgoibarko Udal Musika Banda,
Ondarroako Kresala eta Baltierrako
Udal Musika Banda.
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Kilometroak 96

19,30-22,15 ZINEA

“Pena de muerte”

ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Pena de muerte”

ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Pena de muerte”

OSTEGUNA

19,00 GEOLOGIA HITZALDIA

Hizlaria: Imma Mugerza
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

STIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,30 OSKORRIREN KANTALDIA

25. urteurrena
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
8, larunbata:	Yudego	Zabaleta
9, igandea:	Yudego	Zabaleta
10, astelehena:	Ormazabal	Escala
11, asteartea:	Ormazabal	Escala
12, asteazkena:	Ormazabal	Escala
13, osteguna:	Etxeberria	Anduaga
14, ostirala:	Etxeberria	Anduaga

OKINDEGIA:

9, igandea:

ZineA

Pena de muerte

Zuzendaria: Tim Robbins.
Antzezleak: Susan Sarandon,
Sean Penn, Robert Prosky.
Matthew Poncelet heriotzera
kondenatua dagoen preso da.
Gartzelan Helen Prejean monja
ezagutuko du eta laguntzeko
eskatuko dio heriotz zigorra barka
diezaioten. Monjarentzat erronka
izugarria izango da gartzelaratuaren
arrazoiak bai eta biktimaren
gurasoen testigantzak entzutea.
Monja presoaren kontzientzia
bihurtuko da eta damutu dadin
ahaleginak egingo ditu.



ZURE HAURARENTZAKO
PRODUKTUEN BANATZAILEA
EUSKAL HERRIAN:

- Kotxeak eta sehaskak

BAMBINO

Estazio kalea 3
☎ 10 69 93
EIBAR


DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Promociones Inmobiliarias MENDARO



GOI MAILAKO KALITATEZKO
ETXEAK 12.000.000 pta.tik

2 eta 3 logela

Berogailu indibiduala

- Marmola atarrietan
- Gineako zurak
- Igogailua garajeraino
- Antena parabolikoa

LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK - TRASTELEKUAK

INFORMAZIOA: 13 35 13 (ZARAUTZ)

Tel. Faxa: (94) 491 23 19 ALGORTA



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE



KENSINGTON

Pedro Muguruza, 8
ELGOIBAR
TEL-FAXA: 74 02 36

UZTAILEAN GOGOR EKIN
ingelesa, frantsesa eta alemanari

Matrikulazio epea zabalik daukazu !

Cambridge University Centre ES 438ko partaideak



Ekintzaz beteriko UDA

HAURTZOAK • GAZTETZOAK • NAGUSIAK

BANATZAILE
OFIZIALAK:



EBANIS



GRASSOLER
DESIGN

herma

NANI
MARQUINA



**CARLOS
JANE
CAMACHO**

porada
muebles completos

racconti
GUGINE

STOKKE
muebles de diseño



Zur ta Lur

●●●●●ALTZARIAK●●●●●



*Gurea beste
mundu bat da.*
ZATOZ!!

SWISSFLEX®

BASTIDORERIK GABEKO SOMIERRA

